

OINARRIAK

IZEN-EMATEA

Rally-an izena-emateko epea 2020ko azaroaren 12ko goizeko 9:00etatik 2020ko azaroaren 26ko gaueko 23:59ra arte egongo da irekita. Parte-hartu nahi izatekotan izen-abizenak, herria eta Instagram eta Tik Tok eko erabiltzaile izena bidali beharko dira mezu elektronikoko baten bitartez info@arabaxpress.com helbidera. Taldean parte hartzen badu, gehienez 6 partaidekoa eta mistoa izan beharrekoa. Pandemiaren kontrolerako Covid-19 protokolo guztiak bete behar dira, Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren arabera, horiek betetzen ez dituzten lanak deskalifikatuak izan daitezten.

RALLY-AREN HASIERA EGUNA

Rally-a 2020ko azaroaren 26ko arratsaldeko 18:00etatik azaroaren 29ko arratsaldeko 18:00etara egingo da. Ikus-entzunezko pieza guztiak 48 ordu horietan pentsatu, idatzi, grabatu eta bidali beharko dira.

PARTE-HARTZAILEAK.

Adin guztietako pertsonak parte-hartu ahal izango dute.

Adin txikiko pertsonak haien tutore legalaren baimena beharko dute parte-hartu ahal izateko.

GAIA

Rally-ko ikus-entzunezko pieza guztiak antolakuntzak emandako gai jakin bat oinarri hartuta egin beharko dira. Gai hori 2020ko azaroaren 26ko arratsaldeko 18:00etan jakinaraziko du antolakuntzak @araxpress Instagram eta TikTok kontuetan.

SARIAK

- Humorezko Skech onenari saria 100€
- Narrazio bat jarraitzen duen pieza onenari saria 100€
- Koreografia onenari saria 100€
- Efektu berezi eta filtro oneri saria 100€
- Euskarazko bideo onena, zuzenean DemaSAra sailkatuko da

**Talde edo pertsona bakar batek ezin izango du sari bat baino gehiago irabazi.*

PIEZEN IRAUPENA

Ikus-entzunezko pieza bakoitzaren iraupena 15 segundukoa izan beharko da gutxienez eta 60 segunduko gehienez.

ENTREGA-FORMATUA

Egindako ikus-entzunezko pieza antolakuntzak emandako parte-hartze formularioarekin batera eman beharko da.

Obra guztiak formatu bertikalean eginak izan beharko dira. H.264, MP4, edo .mov formatua izan beharko dute eta (1080 x 1920 / 1127 x 2008 pixeleko tamainan).

*Beste formatu batean egindako piezen proiektzioa ez da aseguratuko eta hortaz honen parte-hartzea ez da aseguratuko. Euskarriari dagokionez, pieza guztiak: info@arabaxpress.com helbidera bidali beharko dira.

KOKALEKUA:

Aurkeztutako pieza guztietan Arabako kokaleku bat agertu behar da derrigorrez behin (Trobiñu barne). Hortaz, parte-hartzaile bakoitzak bizi den Arabako herritik irten gabe grabatu beharko du pieza.

BETE BEHARREKO BESTE OINARRI BATZUK:

- Obra guztiak originalak eta berriak izan beharko dira. Antolakuntzak ez ditu obrek sor ditzaketen copyright urraketan aurrean erantzungo.
- Piezak guztiak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez daitezke.
- Euskaraz egindako bideo onena, zuzeneak DEMASara sailkatuko da eta irabazleen berri emango da antolatzailei eta baita haien kontaktuak ere.
- Antolakuntzak ikus-entzunezko munduan ezagutza zabala duten hiru pertsona aukeratuko ditu irabazleen epaiak emateko.
- Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da.
- Epaimahaiak sari bat edo guztiak eman gabe utz ditzake.
- Parte-hartzaileek egindako piezak jendaurrean komunikatzeko, erreproduzitzeko eta banatzeko eskubidea ematen diote antolakuntzari.
- Rally honetan parte hartzeak hemen aipatutako arauak onartzea dakar.
- COVID-19ren egungo egoera dela eta, antolakuntzak unean- uneko segurtasun neurriak jarraituz jarduera egokitu ahal izango du.
- Parte-hartzaileek COVID-19aren aurka egiteko ezarritako neurriak bete beharko dituzte momentu oro eta salbuespenik gabe. Neurriak errespetatzen ez dituzten pertsonen piezek ezin izango dute parte-hartu eta ez dira proiektatuko.